**Sección de Procedimientos de Selección Hautatze Prozeduren Atala**
San Domingo 8
31001 Pamplona/Iruña Tel.: 848 426996 848426566 848426069
seleccion@navarra.es



# JARDUEREN EGUTEGIA, 2024KO OPOSIZIO-LEHIAKETA GAINDITU DUTENENDAKO

## SARRERA PROZEDURA ETA DESGAITASUNA DUTENENDAKO ERRESERBARENA

| Data | Jarduketa | Tramitea |
|---|---|---|
| 2024-08-02 | Ebazpenak, zeinen bidez onesten baitira deialdi bakoitzeko izangai gaindituen zerrendak, espezialitatearen eta hizkuntzaren arabera. | Dagokien web fitxetan argitaratzen dira.<br>- AHLOL-Atzerriko hizkuntza eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasleen aparteko oposizio-lehiaketa<br>- KOL-Irakasleen kidegoetako aparteko oposizio-lehiaketa.<br>- Maisu-maistren kidegoan sartzeko 2024ko oposizio-lehiaketa |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Sexu delituen ziurtagiri negatiboen aurkezpena. | Deskargatu sexu delituen ziurtagiri negatiboa web orri honetan: https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-registro-central<br><br>Erantsi ziurtagiria, dagokion deialdiaren web fitxako erlaitz honetan: “**Sexu delituen ziurtagiri negatiboa aurkeztea- Oposizioa gainditu eta plaza lortu dutenak**”, “**Tramitatu**” botoia sakatuz. |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Oposizio-lehiaketa kidego bereko edo ezberdineko bi espezialitate eta hizkuntzatan edo gehiagotan gainditu duten izangaiek eskabide orokor bat aurkeztu beharko dute, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, kidego, espezialitate eta hizkuntza bat hautatzeko. | Deialdi bakoitzaren web fitxako erlaitz honetan: “**Plaza hautatzea, oposizio-lehiaketa gainditzeagatik espezialitate eta hizkuntza, eta kidego edo postu batean baino gehiagotan edo beste hezkuntza administrazio batean**”, “**Tramitatu**” botoia sakatuz. |

| | | |
|---|---|---|
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Izangaiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa esparruko lanpostuetan sartzeko oposizio-lehiaketa gainditu badute atzerriko hizkuntzaren profila duten unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostu batean edo hizkuntza batean baino gehiagotan edo kidego batean baino gehiagotan, eskabide orokor bat aurkeztu beharko dute Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, kidego/lanpostu, espezialitate eta hizkuntza bat hautatzeko. | Deialdi bakoitzaren web fitxako erlaitz honetan: "**Plaza hautatzea, oposizio-lehiaketa gainditzeagatik espezialitate eta hizkuntza, eta kidego edo postu batean baino gehiagotan edo beste hezkuntza administrazio batean**", "**Tramitatu**" botoia sakatuz. |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Hautapen prozesua beste hezkuntza administrazio batean gainditu dutenek ere eskabide orokor bat aurkeztu beharko dute, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, dagozkien eskubideei uko egiteko, azken hori aukeratzen badute. | Deialdi bakoitzaren web fitxako erlaitz honetan: "**Plaza hautatzea, oposizio-lehiaketa gainditzeagatik espezialitate eta hizkuntza, eta kidego edo postu batean baino gehiagotan edo beste hezkuntza administrazio batean**", "**Tramitatu**" botoia sakatuz. |
| 2024-08-31 baino lehen | Ebazpenak, zeinen bidez onesten baitira gaindituen zerrenda osagarriak. | Ebazpen bat onetsiko da deialdi bakoitzeko, gaindituen ukoak gertatu diren kidego, espezialitate eta hizkuntzetarako |

## PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK

*(Izendapenaren ondorio-eguna: 2024/09/01)*

Kontuan hartuz irakasleen kidegoetan eta lanpostuetan sartzeko 2024ko ekainetik hasita egiten ari diren hiru hautapen prozedurak, eta bermatu dadin Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren azaroaren 3ko 246/2022 Ebazpenaren bidez onetsitako deialdian hautatuak izan diren irakasleek atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak aukeratzeko duten betebeharra eta lehentasuna, Hezkuntza Departamentuak jakinarazten du 2024-2025 ikasturterako irakasle lanpostuak esleitzeko ekitaldiak abuztuan eginen direla, bai funtzionarioendako eta praktiketako funtzionarioendako, bai aldi baterako administrazio-kontratudun langileendako.

Ondorio horietarako, jakinarazten da funtzionarioendako eta praktiketako funtzionarioendako lanpostuen esleipen ekitaldia 2024ko **abuztuaren 9an** hasiko dela, web fitxan aktibatuko den erlaitz honen bidez: Esleipen telematikoko egintzak.

Lanpostuak esleitzeko ekitaldi horien data zehatzak Hezkuntza Departamentuaren web orrian argitaratuko dira dagozkien fitxetan, eta baita lanpostuen esleipen telematikorako aplikazioan ere, **2024ko abuztuaren 5eko astean**.

**Sección de Procedimientos de Selección Hautatze Prozeduren Atala**
San Domingo 8
31001 Pamplona/Iruña Tel.: 848 426996 848426566 848426069
seleccion@navarra.es



| | | |
|---|---|---|
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Izangaiek gutxienez ikasturte batez zerbitzuak eman badituzte karrerako irakasle funtzionario gisa, praktikaldia egin beharko dute eta ez zaie haren ebaluaziorik eginen.<br><br>Eskabide orokor bat aurkeztu beharko dute, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, adierazteko karrerako irakasle funtzionario moduan zerbitzuak eman dituztela gutxienez ikasturte batez. | Deialdi bakoitzaren web fitxako erlaitz honetan: " **Egiaztapena, karrerako irakasle funtzionario moduan ikasturte batez gutxienez zerbitzuak eman izanarena**", **Tramitatu** botoia sakatuz. |
| Abuztuan. | • Ebazpenak, praktikaldiak arautzen dituztenak.<br>• Ebazpenak, zeinaren bidez oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaiak praktiketako funtzionario izendatzen diren | Dagokien web fitxetan argitaratzen dira<br>- AHLOL-Atzerriko hizkuntza eskakizuna duten unibertsitateaz kanpoko irakasleen aparteko oposizio-lehiaketa<br>- KOL-Irakasleen kidegoetako aparteko oposizio-lehiaketa.<br>- Maisu-maistren kidegoan sartzeko 2024ko oposizio-lehiaketa |
| 2024-2025 ikasturtea | Praktikaldia, zuzeneko irakaskuntza, prestakuntza ikastaroak, osasun azterketa. | Praktikaldiaren kalifikazio batzordeari praktikaldia atzeratzea eskatzen ahal zaio, funtzionarioak aldi baterako ezintasuna badu, edo amatasun bajan edo eszedentzia berezian badago, edo antzeko egoeraren batean. practicasfun@navarra.es. |
| 2024ko urria. | 2024/2025 lekualdatze lehiaketan parte hartzea | |

## 1. SARTZEKO PROZEDURA

| Data | Jarduketa | Tramitea |
|---|---|---|
| 2024-08-02 | Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita onartuen zerrenda, kidegoaren, espezialitatearen eta hizkuntzaren arabera. | Maisu-maistrak 2024 Oposizio-lehiaketa prozedurari dagokion web fitxan argitaratzen da. |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Sexu delituen ziurtagiri negatiboen aurkezpena. | Deskargatu sexu delituen ziurtagiri negatiboa web orri honetan: https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-registro-central<br><br>Erantsi ziurtagiria, dagokion deialdiaren web fitxako erlaitz honetan: “**Sexu delituen ziurtagiri negatiboa aurkeztea- Oposizioa gainditu eta plaza lortu dutenak**”, “**Tramitatu**” botoia sakatuz. |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Oposizio-lehiaketa kidego bereko edo ezberdineko bi espezialitate eta hizkuntzatan edo gehiagotan gainditu duten izangaiek eskabide orokor bat aurkeztu beharko dute, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, kidego, espezialitate eta hizkuntza bat hautatzeko. | Deialdi bakoitzaren web fitxako erlaitz honetan: “**Plaza hautatzea, oposizio-lehiaketa gainditzeagatik espezialitate eta hizkuntza, eta kidego edo postu batean baino gehiagotan edo beste hezkuntza administrazio batean**”, “**Tramitatu**” botoia sakatuz. |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | Hautapen prozesua beste hezkuntza administrazio batean gainditu dutenek ere eskabide orokor bat aurkeztu beharko dute, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzendua, dagozkien eskubideei uko egiteko, azken hori aukeratzen badute. | Deialdi bakoitzaren web fitxako erlaitz honetan: “**Plaza hautatzea, oposizio-lehiaketa gainditzeagatik espezialitate eta hizkuntza, eta kidego edo postu batean baino gehiagotan edo beste hezkuntza administrazio batean**”, “**Tramitatu**” botoia sakatuz. |

**Sección de Procedimientos de Selección Hautatze Prozeduren Atala**
San Domingo 8
31001 Pamplona/Iruña Tel.: 848 426996 848426566 848426069
seleccion@navarra.es



| | | |
|---|---|---|
| 2024-08-31 baino lehen | Ebazpena, zeinaren bidez onesten baita gaindituen zerrenda osagarria. | Deialdia gainditu dutenen ukoak jaso dituzten kidego, espezialitate eta hizkuntzetarako. |
| **PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK**<br>*(Izendapenaren ondorio-eguna: 2024/09/01)* | | |
| Kontuan hartuz irakasleen kidegoetan eta lanpostuetan sartzeko 2024ko ekainetik hasita egiten ari diren hiru hautapen prozedurak, eta bermatu dadin Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren azaroaren 3ko 246/2022 Ebazpenaren bidez onetsitako deialdian hautatuak izan diren irakasleek atzerriko hizkuntzaren eskakizuna duten lanpostuak aukeratzeko duten betebeharra eta lehentasuna, Hezkuntza Departamentuak jakinarazten du 2024-2025 ikasturterako irakasle lanpostuak esleitzeko ekitaldiak abuztuan eginen direla, bai funtzionarioendako eta praktiketako funtzionarioendako, bai aldi baterako administrazio-kontratudun langileendako.<br><br>Ondorio horietarako, jakinarazten da funtzionarioendako eta praktiketako funtzionarioendako lanpostuen esleipen ekitaldia 2024ko **abuztuaren 9an** hasiko dela, web fitxan aktibatuko den erlaitz honen bidez: Esleipen telematikoko egintzak.<br><br>Lanpostuak esleitzeko ekitaldi horien data zehatzak Hezkuntza Departamentuaren web orrian argitaratuko dira dagozkien fitxetan, eta baita lanpostuen esleipen telematikorako aplikazioan ere, **2024ko abuztuaren 5eko astean**. | | |
| 2024ko abuztuaren 2tik 6ra | **Eskaera, praktiketako funtzionario izendatzeko:** Eskabide orokor bat bidalita Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari, praktiketako funtzionario izendatzeko eskatuz. | Praktiketako funtzionario izendatzeko eskatzen ez dutenek jatorrizko kidegoetan jarraituko dute, karrerako funtzionario izendatu arte.<br><br>Praktikaldia egiten dutenek ez dute praktikaldiaren ebaluaziorik izanen. |
| 2024ko urria. | 2024/2025 lekualdatze lehiaketan parte hartzea | |
| 2025-09-01 baino lehen | **Borondatezko eszedentzia eskatzea**, plaza gorde gabe, kidego, espezialitate eta hizkuntza batean. | Jarri harremanetan Hezkuntza Departamentuko Lanpostuak Betetzeko Atalarekin. |
| 2025-09-01 | **Karrerako funtzionario izendatzea**, lekualdatze lehiaketan esleitutako lanpostuaz jabetzea. | Praktikaldia gainditu duten izangaiendako. Lekualdatze lehiaketan plazarik lortu ez dutenek parte hartu beharko dute 2025/2026 ikasturteari dagokion irakasle funtzionarioen lanpostuen esleipen telematikoan. |